



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

31. buletina (2006ko apirilaren 4an argitaratua)

- **Laburpena:**

1. **Haur eskoletako hezitzaileak aldi baterako kontratatzeko zerrendak handitzea**
2. **Hainbat espezialitatetako mantentze lanetarako ofizialak aldi baterako kontratatzeko 10 zerrenda sortzea**

- **Zehaztapenak:**

1. **Haur eskoletako hezitzaileak aldi baterako kontratatzeko zerrendak handitzea**

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren 2006ko martxoaren 23ko ebazpenaren bidez, Haur eskoletako hezitzaileak aldi baterako kontratatzeko zerrenda handitzea erabaki zen.

Berariazko betebeharrak:

Titulu hauetakoren bat izatea:

- Maisu/maistra, Haur Hezkuntzako espezialitatean.
- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslea, Eskolaurreko Hezkuntza espezialitatean.
- Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria.
- Hartzaindegiko teknikari espezialista.

Hautatze prozedura: Lehiaketa.

- Argibideetarako telefonoa: 010 - (945.16.17.98)
- WEB: www.vitoria-gasteiz.org

Deialdiaren oinarriak nahiz eskabide orriak eskuratzeko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira (Espainia plaza, 1; ordutegia: astegunetan, 8:30etik 14:00etara nahiz 16:30etik 19:30era) nahiz Europa, Pilar, Iparralde, Judimendi Lakua, Hegoalde, Arriaga edo Aldabeko gizarte etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara (ordutegia: astegunetan, 9:30etik 14:00etara nahiz 16:30etik 19:30era) jo beharko da. Halaber, bertan aurkeztu beharko dira eskabideak, 2006ko apirilaren 10era bitartean.

2. **Hainbat espezialitatetako mantentze lanetarako ofizialak aldi baterako kontratatzeko zerrendak sortzea**

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren 2006ko martxoaren 29ko ebazpenaren bidez, honako espezialitateetako mantentze lanetarako ofizialak aldi baterako kontratatzeko 10 zerrenda sortzea erabaki zen.

- Kamioiak gidatzea
- Igeltserotza
- Elektrizitatea
- Zurgintza
- Metal arotzeria
- Lorezaintza
- Margolaritza
- Iturgintza
- Hilerriak
- Animalien babesa

Berariazko betebeharrak:

Honakoak izatea:

- Eskola-graduatu edo baliokidea.
- B gida baimena (kamioiak gidatzeko espezialitatearen kasuan C)

Hautatze prozedura: azterketa eta merezimenduak

- Argibideetarako telefonoa: 010 - (945.16.17.98)
- Web-orria: www.vitoria-gasteiz.org

- Deialdiaren oinarriak nahiz eskabide orriak eskuratzeko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira (Espainia plaza, 1; ordutegia: astegunetan, 8:30etik 14:00etara nahiz 16:30etik 19:30era) nahiz Europa, Pilar, Iparralde, Judimendi Lakua, Hegoalde, Arriaga edo Aldabeko gizarte etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara (ordutegia: astegunetan, 9:30etik 14:00etara nahiz 16:30etik 19:30era) jo beharko da. Halaber, bertan aurkeztu beharko dira eskabideak, 2006ko apirilaren 20ra bitartean (egun hori barne).

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 17 98)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**